



HODEI PECIÑA ERAÑA

ZUAZOLA-LARRAÑA-ko
ikasle gatzagarra



GOIAZ! 2018

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oregako Departamentua

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

GAUR EGUN:

Mekanizazioan erdi mailako Heziketa Zikloa ikasten.
Lehenengo mailan.

IBILBIDEA: DBHtik dator.

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

DBHra heldutakoan bi aukera aurkeztu zizkiguten: erdi-mailako ziklo bat egitea edo batxilergoa egitea. Esan ziguten batxilergoan asko ikasi behar dela, eta ni ez naiz asko ikastekoa. Gainera, lagun batek gomendatu zidan Oñatiko Zuazola-Larrañan ari zela ikasten eta ondo hitz egin zidan; hala, hona etortzea erabaki nuen.

Eta nola baloratzen duzu hartutako erabakia?

Egia esan, gustura nago. Pozik nago egin dudan aukeraketarekin. Nahiz eta hasieran abentura bezala etorri nintzen. Lehen egiten genuenak ez dauka zerikusirik orain egiten dugunarekin. Gaiak oso desberdinak dira. Hemen ikasitakoari, behintzat, erabilgarritasuna ikusten diot.

Eta ikaste-irakaste moduari buruz zer esango zenuke?

Eskolak emateko modua desberdina da: hemen teoria gutxiago eta praktika gehiago ematen da. Tailerrera joan, ikusi, praktikatu... makinak ditugunez, bertan errazago ikasten da. Denbora azkar pasatzen zait. Bai irakasleekin eta baita ikasleen

artearen ere harreman oso ona daukagu.

Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?

Aukera asko ematen ditu Lanbide Heziketak: Dual-aren bidez, ikasi eta lan egin dezakezu, eta erdi-mailako zikloan, lan egin ikasten jarraitzen duzun bitartean atzerrira joan zaitezke ikastera... Ideia horiek interesgarriak iruditzen zaizkit.

Lanbide Heziketa aukeratu zenuenean, gurasoek eta ingurukoek ulertu zuten?

Bai etxean eta baita irakasleen aldetik ere animatu naute hartutako erabaki honekin jarraitzera, nahiko garbi neukalako.

Eta hau bukatutakoan ze asmo daukazu?

Erdi-mailako ziklo hau bukatutakoan, goi-mailakoarekin jarraitzeko asmoa daukat. Bitartean, gainera, lan egin badezaket, primeran. Nire asmoa da ekainetik aurrera Dual sistemaren bidez enpresaren batean lanean hastea; udan lan eginez eta irailetik aurrera, bigarren mailan, goizean ikasi eta arratsaldean lanean ikasiz.